

## Kati-Katixa bere burua aurkezten

Kaixo, kaixo, lagunok! Ni Kati naiz eta hauxe da nire aurkezpen-bideoa; nitaz jakin beharko zenituzkeen 10 gauza!

1. Ni Kati naiz, baina Katixa da nire izena. Ez Kattalin, ez Katalin, ez Katilin, ez Katilu... ez ezer. Kati-Katixa.

–Kati-Katilu! Zer moduz dago etxeko katutxoa?

2. Entzun duzuen hori nire aita da. Nik ez nuen aukeratu, baina, tira, horixe egokitu zitzaidan. Niretzat aita da eta zuentzat Joxan.

3. Oso neska alaia naiz. Eta langilea, eta argia.... Sinesten didazue, ezta?

4. Baina bueno, zerbait txarra ere esan beharko dut: esaten didate urduri samarra naizela, eta astoa baino egoskorragoa naizela. Hori esaten dute, baina ni ez nago erabat ados, e!

5. Hau Maitane da. Nire laguna. Eta nire neska-laguna. Bi urte daramatzagu elkarrekin. Asko da, ez zaizue iruditzen? Bada, niri, di-da pasatu zait. Hain da maitagarria!

6. Eta beste hau nire kuadrilla da. Asko gustatzen zait haiekin parrandan ateratzea eta lehertu arte dantzatzea. Zortzi gara! Baina oso desberdinak, hori bai!

7. Nire benetako zaletasuna sukaldaritza da. Bai, bai, sukaldaritza!! Interneten errezeta bereziak bilatzen ditut eta, gero, nik nire ukitutxoa ematen diet. Adibidez: pizza ananarekin oso ezaguna da, denok ezagutuko duzue, ezta? Baina anana makarroiekin probatu al duzue inoiz?

8. Kirola ere egiten dut: yoga eta spinning. Bai, badakit! Oso ezberdinak dira, baina batzuetan horrelakoa da bizitaza, ying eta yang. Sasoian egoteko, oreka bilatu behar da, bai kanpotik eta baita barrutik ere.

9. Zurich da ezagutu dudan hiririk politena. Maitanerekin joan nintzen aurreko urteko gabonetan, elurra mara-mara egin zuen egunero. Izen aproposa jarri zioten hiriari: Zurich zuri-zuri zegoen.

10. Eta azkena, sekretu bat. Oinetako behatz bat besteak baino askoz luzeagoa daukat. Erdikoa. Eta galtzerdi guztiak bertatik zulatzen zaizkit. Baina ez dizuet erakutsiko, zeren ez da oso atsegina...

Eta oraingoz, hauxe da guztia, lagunok! Orain badakizue zerbait gehiago nitaz. Nahi duzuen arte.